

# Espetxetuak

Euskaldun seme, aberkide jator,  
erruki zaitut biotzez;  
orbel oria pareko zabiltz  
aspaldi danik, zigorrez.

Zure samina bekigu danoi  
bizi ats-bide aberkoi.

Gaiztotzat joa zakusta estu,  
gogo ta gorputz auldua;  
ames bat dozu, barru josia,  
etxera miñez austua.

Gauez dituzu begiak gora  
Jauna otoituz samurki,  
egunez barriz espetxe-ormak  
dituzu malkoz garrakki.

Zure samina bekigu danoi  
bizi ats-bide aberkoi.

Goizez eguzkik zelaia laztan,  
nik zu nai maitez besarka;  
etxeakaz ikusi nai zaitut  
biotz berotsu laztanka.

Zure samina bekigu danoi  
bizi ats-bide aberkoi.